

2004ko APIRILAREN 20ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta lau apirilaren hogeian, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 2004 URTEKO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

Lizartzako Udal honen 2004ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 276.097,79 eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

3.- MAILEGUA

Udalbatzak, gai honi buruz eztabaidatu ondoren, Batzarra zuzenbidez osatzen duten kideen beharrezko gehiengo nagusia osatzen duten, zazpi zinegotzien aldeko botoei esker, HAU ERABAKITZEN DU:

Lehenik

- 1.- Gipuzkoa Donostia Kutxarekin, EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (150.000,00) €-tako zenbatekoa duen mailegua kontratatzea; honen ezaugarri berezienak hauek dira, onartu eta ERANSKIN gisa erabaki honi atxikitzen zaion Kontratu-Proiektuaren arabera: Interes-tasa aldakorra, EURIBOR gehi 0,20 puntutan gehitua; amortizazio-epea, 15 urteraino, 2 urteko gabeldia barne.
- 2.- Aipatu maileguaren helburua, Lizartzako A-3 A-4.klo zubiaren Inbertsio Proiektuak zati batean finantzatzea da.
- 3.- Kontratutako maileguaren itzulketaren berme gisa, Aurrekontuetako diru-sarreraren printzipalaz eta diren nahiz izango diren ondasun eta eskubide guztien nagusiaz eta subsidiarioaz gain, jarraian datozenok ematen dira:

“Aipatu maileguarengatik, honen interes, komisio, gastu eta zor lekioken ororengatik, Lizartzako Udalarenaren lehentasunezko hartzekodun izaeraz, era berezian lotzen eta kargatzen dira honako baliabideek sor litzaten diru-sarrerak:

UDAL FINANTZAKETAKO FORU-FONDOA

Itundutako bermearen eragimenerako, era ezeztazinean ahalmena ematen zaio Gipuzkoa Donostia Kutzari, akordio hau kasuan kasuko Erakunde ordaintzailearen aurrean erakusteko betebeharrak bakarraz, aurreko lerroaldean zehaztutako baliabideetan esku hartzearengatik, Lizartzako Udalarari sorlekizkiokeen kopuruak ordaindu ahal diezazkioten”.

- 4.- Era ezeztazinean Gipuzkoa Donostia Kutzan helbideratzea Udal Finantzaketako Foru-Fondoan esku hartzetik eratorritako diru-sarrerak (Zerga Itunduak) edo, hala dagokionean, haiek ordezkari litzana, Udalak, orain kontratatzen dena barne, formalizatuak dituen maileguen eta kredituen ehuneko berdinean edo handiagoan, zorpetzearen guztikoari datako egunean dagokionez.

Aipatu helbideratzea, kontratatzea den eragiketarik nahiz indarrean diren gainontzeko mailegu eta kredituetatik eratorritako kutxarekiko finantz erantzunbeharrak kitatu artean mantenduko da.

Bigarrenik

Ahalmena ematea Udaltzaren Buru den, JOSEBA EGIBAR ARTOLA Jaunari, haren izenean eragiketa honen formalizaziorako beharrezkoak liratekeen agiri publiko zein pribatu oro izenpetu ahal ditzan.

Hirugarrenik

Erabaki hau eta ondorioetarako ireki den espedientea derrigorrezko informazio publikoan ipintzea arauko 15 egunen epe bitartean.

Laugarrenik

Espedientea Gipuzkoako Foru-Aldundiari igortzea, aurretiazko eta derrigorrezko baimena eskuratzeko asmoa.

4.- A-3, A-4 LOTURAKO ZUBIAREN PROIEKTUA ETA OBRAK ADJUDIKATZEKO BALDINTZA PLEGUAK ONARTU

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, Asmatu S.L.k egindako “Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena” Proiektuaren Obrak Enkante Bidez Kontratatzeari. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritik egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2.- OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea, 6 hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzunkizunei aurre egin beharko dire, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren Prezioa 318.153,88 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioaren oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4.- FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5.- NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dabidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, ere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %4 izango da, hau da, 12.726,15 €. Nolanahi ere, esleipena lortu duen enpresariaren proposamena, hasiera batean, ausarkeria-ustearen menpe egon bada, behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %20 izango da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 36.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak

beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako testu bateginaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

8.- KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra, kontratuaren burutzapena, eta hori egutegiko hamabost eguneko epean izan beharko da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaen gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 144. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- a) agiri honetan ezarritako baldintzak;
- b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta
- c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta lege hori garatzeko Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9.- ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak ere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunakez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 149.e artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12.- OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak

esleitzalearen esku utzi dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera,ko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Herri Administrazioen Kontrtuei buruzko Legea eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak zkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrakesleitzalearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZA BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu:

kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 111 eta 149. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) heri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena enkante ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena hurrengo baremoen arabera egingo egingo da:

- Prezio txikiena: 50 puntu.
- Lizartzako udalean egindako lan eskarmentua: 30 puntu.
- Kontratuaren exekuziorako proposamen honena: 20 puntu.

17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin

eta beren kaudimena eta difagarritasun tekniko do profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute. Heri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo, baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udaletxeke Idazkaritza.

EGUNAK: Astelenetik Ostiralera.

ORDUA: Goizeke 8:00tatik, 14:00ra.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegike 26 eguneko epean, iragarki ori argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio Kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badu, baliozkoa izan dadin, herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "A-3, A-4 LOTURAKO ZUBIA"ren OBRAK ENKANTE IREKI BIDEZ KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetua egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze-edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko enbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna jarduteko gaitasuna dela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira

lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

- c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.
- d) Ekonomi Jaurderen gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 16 eta 17 artikulutan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.
- f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

- g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

“B” kartzalaren azpтитulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Bertan aurkeztu beharreko proposamena honako eredu honen arabera egingo da:

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:, NAN., Telef:

Ordezariaren datuak: (Egonez gero)

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:, NAN.edo IFK....., Telef:

A-3, A-4 LOTURAKO ZUBIAREN Obrak, kontratatzeko asmoz Lizartzako Udalak dei egindako enkantearen berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

- 1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudula:€ (BEZ) barne. Prezio horren %, hau da,€ BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:
- 2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

- 3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

..... 2004koren ... a

Izenpea

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazal" sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Eraberean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berriaz adieraziko du

zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, goizeko bederatzitan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, eta goki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

20.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena, gehienez, hogeit hamar eguneko epean egingo da, diru-proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Esleipena egin aurretik, esleipena hartzeko proposatuta dagoen lehiatzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betriki dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu. Bost egun baliokiduneko epea izango du hori egiteko, jakinarazpen egokia jaso eta biharamunetik hasita.

Kontratazio organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari eta honek, egutegiko hamabost eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea, eta egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, gastuak ordaindu.

- c) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta ziunketa-akta izenpetzeko.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzen.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, II. Liburuko I. Tituluan ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agir honetan zehaztutakoa nagusi

22.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontraturik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Prozedura Irekiaren bidez, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena Proiektuaren Obrak egiteko, lehiaketa arautzen duen baldintza partikularren plegua, aholkularitza eta laguntzako kontratuko oinarrizko lege gisa erabileko den Baldintza Plegua, azertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- A-5, U-2 SEKTOREA. HIRIGINTZA HITZARMENA

HIRIGINTZA HITZARMENA

Lizartzan, 2004ko Martxoaren 24an.

Alde batetik, JOSEBA EGIBAR ARTOLA jauna, Lizartzako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Alkate-Lehendakaria den neurrian.

Eta, bestetik, JAVIER MALCORRA ARSUAGA jauna, adinez nagusia, 15.9126.975 G NAN zenbakia duena, "AGUA DE INSALUS S.A." enpresaren (IFK: A20000139) izenean eta hura ordezkatzuz, Tolosako notarioa den Jose Manuel Domingo Serrano jaunaren aurrean, 1993ko martxoaren 25ean, egiletsitako ahalordearen arabera.

Beren ordezkartzaren izaerekin bat etorritik, bi alderdiek elkarri aitortzen diete HIRIGINTZA HITZARMEN hau egilesteko beharrezkoa den legezko gaitasuna, eta horretarako, eta egintza honen fede ematen duen Lizartzako Udaleko Idazkari ANA JESUS ZABALA GARMENDIA anderearen aurrean, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I.- "AGUA DE INSALUS S.A." enpresak 1888tik botilaratzen du ur minerala Lizartzako Udalerrian.

Hasieran, jarduera hori Lizartzako arau subsidiarioetako 5. arean zeuden zenbait eraikinetan egiten zen, eta lur guztiak enpresarenak ziren. Aipatutako arau subsidiarioak Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu zituen

1988-06-14an egindako bilkuran, eta 5. area horri Industria erabilerako Lurzoru Hiritarreko 5. area izena jarri zion.

Halaber, arau subsidiario horiek beste hirigintza eremu bat eratu zuten aurrez aipatutakoaren ondoan. Beste eremu honi izen hau jarri zitzaion: U-2 sektorea, Urbanizagarria den industria erabilerako lurzoru. Eremu hori “AGUA DE INSALUS S.A.” enpresarena zen oso-osorik, eta **haren xede urbanistikoa “Agua de Insalus-en egungo instalazioak handitzeko aukera ematea” zen.**

II.- Produkzioaren beharrei aurre egiteko, “AGUA DE INSALUS S.A.” enpresak U-2 Sektorean eraikin berri bat egiteko beharra izan zuen 1997an; eta, horretarako, Arau Subsidiarioen barruko aldaketa izapidetu eta onartu zen sektore horretan, eta sektorea hiru lurzoru bihurtuz. Aipatutako eraikinak ez zuen U-2 sektoreari zegokion aprobetxamendu guztia agortu, eta partzela eraikigarri bat geratu zen aurrerantzean izan zitezkeen handitzeetarako.

Halaber, aurreko guztia egin aurretik, planeamenduan ezarritako lur lagapenak egin ziren, aprobetxamenduaren %10 lagatzeagatik ezarritako kalte-ordaina ordaindu zen, eta urbanizazio lanak ordaindu ziren.

III.- Aurreko uztailaren 26ko gauean ustekabeko sute bat piztu zen 5. areako erakinetan, eta suteak erabat kiskali zuen ontziratze nabea, enpresaren erdigunea. Libratu egin ziren, berriz, sutetik biltegi moduan erabiltzen ziren eta hirigintza eremu berean zeuden beste bi industria nabe, baita U-2 sektorean egindako eraikina ere.

Istripu larri horrek erabat hautsi ditu enpresak zituen asmoak, eta kasu hauetan beharrezkoak diren bideragarritasun eta funtzionalitate azterketak egin ondoren, enpresak bere jarduerarekin jarraitzeko erabakia hartu du. Alabaina, bere jarduerarekin jarraitu ahal izateko, ezinbestekoa da U-2 sektorean aurreikusten ziren handitzeetara mugatzen zen eraikuntza programa berrikustea.

Horrela, kiskalita geratu zen 5. areako eraikina berreraikitzea aurreikusten da, eta U-2 sektorean eraiki gabe geratu zen eremua ere berreraikitze horretarako erabiltzea. Bide horri jarraituta, ez da bi eremu horietako aprobetxamendua aldatzen, birbanatu egiten da.

Beharrezkoa da aipatzea, merkatuaren eskakizunek behartuta, ezinbestekoa dela enpresaren jarduerari lehenbailehen berrekitea, jarduerak berriz martxan jartzeko prozesua luzatzeak proiektuaren bideragarritasuna bertan behera utz baitezake.

IV.- Lizartzako Udala arau subsidiarioak berrikusten ari da, eta berrikuspenaren Aurrerapenak ondorengo egunetan beteko du jendaurreko informazioaren izapidea.

V.- “AGUA DE INSALUS S.A.” da, udalerrian, langile gehien dituen enpresa, eta egiten duen jarduerak begirunea dio ingurumenari.

Halaber, aintzat hartu behar da enpresa hori lehena dela bere sektorean, eta arlo horretako enpresa garrantzitsuena da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hori guztia dela eta, Lizartzako Udalaren helburua enpresa jardueraren jarraipena posible egitea da.

VI.- Jarritako helburuak bete ahal izateko, alderdiek HIRIGINTZA HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute. Hauek izango dira hitzarmenaren

HIZBAKETAK

LEHENA.- Legezko gaitasuna eta fede ona.

Bi alderdiek aitortzen diete elkarri kontratu hau egin eta izenpetzeko legezko gaitasuna, eta hura fede onez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua Arau Subsidiarioen Berrikuspen Agiriaren hirigintza edukia ezartzea, finkatzea eta erabakitzea da, egungo 5. Areak eta hiri lurzoru industrialeko U-2 sektoreak osatutako hirigintza eremurako.

HIRUGARRENA.- Horretarako, Lizartzako Udalak Arau Subsidiarioen Berrikuspen Agirian exekuzio unitate bakarra zehaztuko du, 5. Areak eta U-2 Sektoreak osatua. Hauek izango dira exekuzio unitate horren oinarritzko zehaztapenak:

IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Oro har, antolamenduaren helburua dauden eraikinei bukaera ematea izango da.

ERABILERA INTENTSITATEA ETA ERAIKUNTZA PARAMETROAK

- Area berriaren azalera: 11.920 m².
- Partzela eraikigarriak: Gehienezko eraikitze profila Behe Solairukoa izango da, 14 metroko gehienezko altueraz.
- Sestra gainean eraiki ahalko den gehienezko azalera 7.380 m²-koa izango da.

Alabaina, LIZARTZAko Udalak berariaz ohartarazten du Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola Udal Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko espedientea behin betiko onartzea.

LAUGARRENA.- Exekuzio unitate berria konpentsazio sistemaren bidez kudeatuko da.

BOSGARRENA.- Halaber, LIZARTZAKo Udalak Arau Subsidiarioen Berrikuspen Agiriaren izapideak lehenbailehen —dituen eskuduntzen barruan eta araudiak ezarritako epeak betez— egiteko konpromisoa hartzen du, baita, hala badagokio, hirigintza eremu berria garatzeko beharrezkoak diren hirigintza agiri eta tresnak onartzekoa ere, eraikitzeo baimenak ahalik eta lasterren emateko aukera izan dadin.

SEIGARRENA.- “AGUA DE INSALUS S.A.” enpresak, Hitzarmen honen baitan, bere gain hartzen du eraikuntzako aurreproiektuak aurretiaz Udalari ezagutzera emateko obligazioa. Obligazio hori Lizartzako Udalarekin hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Izaera juridikoa.

Lurzoruaren erregimenari eta hiri ordenazioari buruzko ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren 303. artikuluekin eta horrekin bat datozen artikuluekin bat etorriz, hitzarmen hau interpretatzean edo aplikatzean sor daitezkeen auziek izaera administratiboa izango dute, eta LIZARTZAKo Udalbatzak erabakiko ditu, hala badagokio, horiek administrazioarekiko auzietako jurisdikzioak ebatzi aurreko bidean.

Eta ados egotearen adierazpen gisa, alderdiek bi aletan izenpetzen dute agiri hau, goiburuan adierazitako leku eta egunean eta, neuk ematen dut, Idazkariak, horren guztiaren fede.

A-5, U-2 Sektoreko Hirigintza Hitzarmena, aho batez, berretsi da.

6.- U-1 ZONALDEKO HIRIGINTZA HITZARMENA

LIZARTZAKO UDALAREN ETA LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.1 EXEKUZIO UNITATEKO JABEEN ARTEKO HIRIGINTZA HITZARMENA, AIPATUTAKO UNITATEAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO

Lizartzako Udaletxean, 2004ko Otsailaren 27an.

BILDUTA

Alde batetik, **JOSEBA EGIBAR ARTOLA** jauna, LIZARTZAko Udaleko Alkate-Lehendakari gisa.

Bestetik, **JOSE IGNACIO GALARRAGA URRETAVIZCAYA** jauna, adinez nagusia, -jakinarazpenetarako helbidea: Tolosa (Gipuzkoa), Iruñako Etorbidea 12- NAN. Zenbakia: 15966525 V – URBA U.T.E. aldi baterako enpresa elkartearen –egoitza Tolosa, (Gipuzkoa) Iruñako Etorbidea 12an duzenez eta hura ordezkatzuz, haren gerente gisa. Aipatutako aldi baterako enpresa elkarte, URBA, U.T.E. 2000ko irailaren 1ean eratu zen Emilio Navarro Moreno Tolosako notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez – protokolo, 1294 zenbakia duena-; eta identifikazio fiskaleko G-20710109 zenbakia du.

Egintzaren fede ematen duen Udalbatzako Idazkari den **ANA JESUS ZABALA GARMENDIA** andrearen aurrean, hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehena.- U.1 exekuzio unitatea garatzeko, eta Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioek araututakoarekin bat etorriz, Gipuzkoako Foru Aldundia “Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U.1 Sektoreko Plan Partziala” onartu zuen behin betiko 1995eko martxoaren 2an – 1996ko uztailaren 30eko 146 zenbakiko GAOn argitaratua-.

Bigarrena.- Aipatutako plan partzialak, 2002ko martxoaren 25ean Lizartzako Udalak behin betiko onartutako jarduera sistema aldaketaren ondoren, konpentsazioko jarduera sistema aurreikusten du.

Hirugarrena.- Jarduketa unitatea garatzen duen plan partzalean araututakoarekin bat etorriz, 2003ko abenduaren 23an U-1eko xehetasun azterketa egitea onartu da behin betiko.

Laugarrena.- URBA U.T.E. aldi baterako enpresa elkarte da U.1 exekuzio unitateko lur guztien jabea, eta guar egun kudeaketa eta garapen fasean egonda, nahitaezkoa da horiek berdinbanatzea eta urbanizatzea.

Bosgarrena.- Bildutako alderdien artean egindako elkarrizketen ondoren, interes publikoekin eta pribatuekin bat datorren akordio batera iritsi dira, eta hura agiri honen bidez formalizatzen dute erabaki hauetan oinarrituz.

ERABAKIAK

Lehena.- Alderdiek elkarri onartzen diote hitzarmen hau izenpetzeko eta egiteko legezko gaitasuna, eta hura fede onez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Bigarrena.- Hitzarmen honen xedea Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U-1 exekuzio unitatearen kudeaketako arauak finkatzea da, eta sortutako obligazio ekonomikoak ordaintzeko baldintzak zehaztea.

Hirugarrena.- LIZARTZAko Udalak, alkatetzaren bidez, aurkezten diren urbanizazio proiektuak eta xehetasun azterketak indarrean dauden legeen arabera eta ahalik eta lasterren tramitatzeko konpromisoa hartzen du; baita, bere kasuan, obrak egiteko lizentzia ere, jabetzak hala eskatzen duenean.

Laugarrena.- Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduko 115. artikuluekin bat etorriz, jabeek, ados jarririk, eskritura publikoan formalizatutako birpartzelatze proposamena aurkeztu beharko dute, eta bertan, jabeei dagozkien onurak eta zamak esleituko dira, eta jabetza eta

erabilera publikorako lurren lagapena formalizatu beharko da, plan partzialak araututakoari jarraituz.

Lizartzako Udalari dagokion %10eko aprobetxamendua, (133.000,00) euro, horrela banatuko da:

- 200 m²ko nabea eraiki eta lagako da, honekin batera doazen planoek zehaztutakoari jarraituz, Udalari laga beharreko lur eremuan, eta 10 metroko zabalera, 20 metroko luzera eta zertxetaraino 6 metroko altuera izango du. Sustatzaileek egin behar dituzten gainerako nabeen eraikuntza ezaugarri berak izango ditu. Nabearen balioespena 58.899,19 eurokoa izango da, eta hitzarmen honekin batera doan eranskinean jasotzen diren eraikuntza ezaugarriak izango ditu.
- Aprobetxamenduari dagokion beste zatia diru bihurtuko da; HIRUROGEITA HAMALAU MILA EHUN euro eta LAUROGEITA BAT zentimo, (74.100,81) Euro hain zuzen ere.

Hitzarmen honetan finkatutako hirigintza aprobetxamenduak ez du jasotzen tarteko solairuetan eraikigarria den azaleraren likidazioa. Likidazio hori onartutako obra proiektuen arabera izango da, eta guztiek espediente bakoitzean eraikitzen den azalera adierazi beharko dute. Kasu horietan, irabazizko aprobetxamenduaren %10eko balioa horiek eraikitzeko udaleko teknikariek indarrean dauden legeen arabera ezarritako balioespenaren arabera finkatuko da.

Bosgarrena.- Zehaztutako zenbatekoak ondoren adierazten den moduan likidatzea adostu dute alderdiek:

- Eraikuntzako udal tasa: eraikitzeko lizentzia eman izana jakinarazi eta ondorengo 20 eguneko gehienezko epean.

Tasaren zenbatekoa udal ordenantzetan araututakoaren arabera finkatuko da.

- Hirigintzako aprobetxamenduaren %10aren lagapena: 66.500,00 euro, hitzarmen hau sinatzen den ondorengo 20 eguneko gehienezko epean. Gainerako 7.600,81 euroak obra guztiak, bai eraikuntzakoak, bai urbanizazio orokorrekoak, behin betiko amaitu eta ondorengo 20 eguneko gehienezko epean.

Urbanizazio eta eraikuntza lanak batera egiten badira, sustatzaileak abal bat eratu beharko du urbanizazio obrak egingo direla bermatzeko. Abala udaletxean aurkeztuko da urbanizazio proiektua onartzen denean.

Seigarrena.- Unitatea urez hornitu ahal izateko, Lizartzako Udalak ur biltegia jartzeko lurak eskuratzeko eta haren mantentze lanak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.

Bestalde, URBA U.T.E.k ur biltegia udalak adierazitako lekuan eta hark ezarritako zehaztapenen arabera eraikitzeko konpromisoa hartzen du, urarentzat bi irteera jarriz. Obra egin ondoren, sustatzaileak Lizartzako Udalari emango dio ur biltegia.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honetan sartzen diren lur sailen eskualdaketa negoziatuz gero, alderdiek udalari komunikazio bide fede emaile baten bidez lehenbaitlehen jakinarazteko konpromisoa hartzen dute. Lur sailok eskuratzen dituen subjektu berria berriaz subrogatu beharko da hitzarmen honetatik eratoritzen diren eskubide eta obligazio guztietan.

Zortzigarrena.- Lizartzako Udalarentzat xedaezinezkoak direnak izan ezik, hitzarmen honetako zehaztapenak alderdien akordioz aldatu, handitu edo garatu ahalko dira.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena baliozkoa eta aplikagarria izateko, Lizartzako Udaleko Udaltzarak berretsi egin beharko du.

Hamargarrena.- Udaltzarak berretsi ondoren, alderdiek agiria eskritura publiko bihurtu nahi badute, hitzarmen honetatik eratorritako gastuak, horien izaera edozein dela ere, eragindako partzelen jabeen kontura izango dira.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau behar bezala izapidetuta erantsi beharko zaio berdintzanatze agiriari, hura jabetza erregistroan inskribatzerakoan.

Hamabigarrena.- Hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, Lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen (89. zenbakiko BOE) 4. artikuluan araututakoekin bat etorriz, eta ura dela eta sortzen diren auziak Udaltzarak erabakiko ditu, hala badagokio, jurisdikzio bidean jar daitezkeen errekurtsioak jarri baino lehen.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, bildutako alderdiek ale bikoiztuan ematen eta izenpetzen dute kontratua, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

U-1 Zonaldeko Hirigintza Hitzarmena, aho batez, berretsi da.

7.- MARIANO URBIZU. LURREN PERMUTA

IKUSIRIK.- Mariano Urbizu Zabala Jaunak, Udalaren jabetzako lurak, bere jabetzakoekin trukatzeko eginiko proposamena.

KONTUTAN HARTUAZ.- Egunen batean, Iturralde Etxe aldera, bide berria egin ahal izateko, Mariano Urbizu Zabala Jaunaren jabetzako lur hoiek hartu behar izango direla.

KONTUTAN HARTUAZ.- Gerora begira, Udalaren jabetzako lurak ez direla beharrezkoak, malkarrak eta desegokiak direlako.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera proposatu da:

- 1.- Mariano Urbizu Zabala Jaunak eginiko, Lurren Trukaketarako proposamena onartzea.
- 2.- Joseba Egibar Artola Alkatea, ahalordetzea, trukaketa hori egiteko, behar diren agiriak luzatu eta sinatu ahal izateko.

Mariano Urbizu Zabala Jaunak, Lurren Trukaketa egiteko eginiko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- OBREN ADJUDIKAZIOA

A-4,ko LOKALAK

LIZARTZAKO UDALARI LAGA BEHARREKO LOKALAK EGOKITZEKO LANAK
ESLEITZEKO EBAZPENAREN PROPOSAMENA

IKUSIRIK.- Lizartzako Udalak eta SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. enpresak, 2003ko apirilaren 23an sinatutako administrazio-kontratua, alde batetik Lizartzako udalak A-4 arean jabetzan dituen lur-sailen zati bati dagokion Lurzoru Eskubidearen esleipen-lehiaketa formalizatzen duena, eta bestetik babes ofizialeko 26 etxebizitzaren eraikuntza, trastelekuekin, garaje lotuekin eta lokalekin, itundutako sustapenaren araubidean oinarrituta.

JAKINIK.- Aipatu kontratuaren bidez, SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. enpresak konpromisoa hartzen du, azaleraren eskubide-hartzaile gisa, aipatutako higiezinaren eraikuntzako obren exekuzioa sustatzeko, eta

ondoren, horretarako izapidetutako espedientean jasotako baldintzetan besterentzea.

JAKINIK.- Indarrean dagoen 1992ko Lurzoruaren Legeko 288.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, azaleraren eskubide-hartzaileak eman beharreko kontraprestazioa, hau da: Udalari ematea eta Udalaren esku jartzea, inolako kargarik eta zergarik gabe, 12 etxebizitzako blokean eraikitzea aurreikusitako lokalak. Lokal horiek 324,66 m²-ko azalera dutela estimatzen da.

JAKINIK.- Udalak lokal horiek egokitu behar dituela, interes publikoko erabilerarako bideratzeko xedearekin, eta horretarako udal zerbitzu teknikoetatik proiektu bat erredaktatu da. Proiektuak 125.105,54 €-ko aurrekontua du, eta lokalek amaituta eta egokituta egon beharko dute, gainerako eraikuntzen exekuzioa amaitzen den aldi berean.

JAKINIK.- SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. enpresak kontratatutako enpresa, CONSTRUCCIONES AIERBE S.L. da, 26 etxebizitza, trastelekuak, garaje lotuak eta lokalak eraikitzeke lanak exekutatzeko ari dena.

AINTZAT HARTURIK.- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Berritua onesten duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 141. artikulua aurreikusten duenez, prozedura negoziatua erabil daiteke aurretiazko publizitaterik gabe, ondorengo inguruabarretako bat gertatzen denean, inguruabarrak espedientean justifikatu beharko direla kontutan hartuta:

- a) Ez proiektuan ez kontratuan agertzen ez diren obra osagarriak badira, baina exekutatu beharrekoak izanik, aurreikusi gabeko inguruabarren ondorioz, betiere obren exekuzioa obra nagusiaren kontratatari esleitzen zaionean, jatorrizko kontratuan

xedatutako prezioekin bat etorriz, edo, egoki bada, kontraesankorki ezarriak izango balira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, ondorengo eskakizunak bete beharko dira, kontratu nagusiari dagokionez:

- 1.- Obrak ezin direla ez teknikoki ez ekonomikoki bereizi jatorrizko kontraturik Administrazioari eragozpen handirik eragin gabe, edo, kontratu honen exekuziotik bereizi baldin badaitezke, behar-beharrezkoak izan beharko dira exekuziorako.
- 2.- Behin betiko proiektu honetan exekutatu diren obra osagarriak, gutxienez aurrekontuaren % 50ean, kontratu nagusiko obra-unitatez osatuko direla.
- 3.- Obra osagarrietan metatutako zenbatekoak ez duela gaindituko kontratuaren jatorrizko prezioaren %20.

Aurreko paragrafoetan adierazitako eskakizunak betetzen ez dituzten gainerako obra osagarriak kontratazio independente bidez xedatu beharko direla.

AINTZAT HARTURIK.- Obra osagarriak proiektu berri bat direla, hasieratik kanpo geratzen direnak eta hasierako proiektua aldatzen ez dutenak, eta kontratu berria sortarazten dutela, kasu jakin batzuetan zuzenean kontratista berari esleitzeko aukeran kalterik eragin gabe.

AINTZAT HARTURIK.- Obra osagarrian prozedura negoziatuaren modalitatea bideratzeko, obrak beharrezkoa izan behar du, eta halako kontsiderazioa emango zaio, kontratu nagusitik teknikoki edo ekonomikoki bereiztea ezinezkoa bada Administrazioari eragozpen handirik eragin gabe, edo

bereizteko modukoa bada, behar-beharrezkoa izan beharko da perfektionatzeko.

AINTZAT HARTURIK.- Udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako Proiektuaren arabera, aurreko ataletan ezarritako eskakizunak betetzen direla, eta premia eta interes publikoa behar bezala justifikatuta daudela.

AINTZAT HARTURIK.- Beharraz gain, kontratu nagusiaren zenbatekoaren %20a gainditzen ez bada, negoziazioa bidezkoa dela, baina soilik obra nagusiaren kontratistarekin.

AINTZAT HARTURIK.- Toki Araubideko Oinarrien Legeko 21. artikuluan eta lege aplikagarrietan xedatutakoa.

Lizartzako Udaleko Alkatetza Udalburutzak HAU EBATZI DU:

Lehenik.- Construcciones Francisco Aierbe, S.L. enpresari enkargatzea, 12 etxebizitzako blokean kokatutako lokalak egokitzeko eta ixteko lanak egitea. Lokal horiek Udalari laga behar zaizkio, Udaleko arkitekto aholkulariak egindako obren Proiektuarekin bat etorritz.

Bigarrenik.- Ebazpen hau SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. enpresari jakinaraztea, beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

OSASUN ZENTRUA

Bi mila eta lauko martxoaren hamaseian ospatutako bilkuran, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Obren Kontratazio Lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L. enpresaren alde, bera izan delako proposamenik egokiena aurkeztu duena.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, ERABAKI DUT:

- 1.- Lehiaketa negoziatua balioestea eta, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Obren Kontratazioa CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE, S.L.ri, BERROGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU Euro HEMERETZI Zentimo (57.394,19) (Bez barne delarik) €-tan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 622.411.01.01 partidaren kargura, 57.394,19,- €-tako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

9.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA, UR PUBLIKOAREN KONTROLA ETA ZAINZA SISTEMAREN ARDURA

Edateko ur publikoaren kalitatearen kontrola, zaintza eta informazio-sistema arautzen duen, 2002ko Uztailaren 16ko, 178/2002 Dekretuak, horniketa kudeatzaileek beren jardura guztiak edo batzuk aipatutako ur-bilketa, tratamendu eta kontsumo publikorako ur banaketa lanetan dihardutenak Kontroleko eta Zaintzako Unitateak, propioak edo hitzartutakoak eduki behar dituzte, aipatutako Dekretuak ezartzen dituen egitekoak betetzeko (orain arte Osasun Departamentuak egiten ditu, edateko ur publikoaren kontrola eta zaintza gaietaz gain informazio guztia bidaltzea eta zabaltzea, e.a.)

Udalaren kasuan, uraren banaketa Udalari berari dagokio, beraz, hasiera batean, Dekretuak ezartzen dituen egiteko guztiak, Udalak berak egin beharko ditu.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa denez, herrian zabaltzen den uraren deposituko kontrola duena, berarekin harremanetan jarri da Udala, Dekretuaren noranaikoa jakin eta bera indarrean jartzeak zein koste ekonomiko izango duen, eta Kontsortzioa egiteko horiek bere gain hartzeko gai izango den jakiteko.

Gipuzkoako Ur Kontsortziotik jakinerazi digutenez, bere Batzorde Exekutiboak eta Kontsortzioa osatzen duten Udal Batzuk eskatuta, 2005 ekitaldiko aurrekontuetan eta prezioetan, sartuko da, ALTAko uraren prezioan edo Finantzaketa Kanonaren zenbatekoan, Kontsortzioak Kontrol eta Zaintza Unitateko lanak Kontsortzioa osatzen duten Udal denetan, eta Uraren Ziklo Integralaren fase denetan egiteak ekarriko duen kostea.

Honek, Saneamenduko instalazio berriak sartzeagatik, KPI'ak, etabarregatikako prezio igoeraz aparte, gutxi gora behera Altako Horniketa Prezioan, 0,015 €/m³ edo Finantzaketa Kanonean 0,0180,020 €/m³ igoera ekarriko du.

Kontutan hartuta, Udalak ez duela ahalmen materialik, kontrol eta zaintza sistema hori ezarri eta aurrera eramateko, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA, Ur Publikoaren Kontrol eta Zaintzako Unitate bezala izendatzea, aho batez onartu da.

10.- UDALERRIKO HAUTESKUNDE MAHAIK ERATZEKO ESKUMENA **ALKATE-LEHENDAKARIARI EMATEKO PROPOSAMENA**

- 1.- Alkateari eskuordetzea, Lizartzako Udalean ordezkartza duen talde politiko bakoitzeko kide batez lagunduta, Udalerriko Hauteskunde Mahaiak eratzeko eskumena. Erabaki honek legealdi honetan izan litezkeen hauteskunde guztietarako izango du balioa. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Legeak jasotako erregelei jarraiki.
- 2.- Erabakiak, hartzen den biharamunetik aurrera izango du indarra eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean rgitara emango da guztien ezagupenerako.

Udalerriko Hauteskunde Mahaiak eratzeko eskumena Alkate-Lehendakariari emateko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

11.- MANU AZKARATE. MOZIOA

2004ko urtarrilaren 14an Manu Azkarate Tolosar preso politiko ohia atxilotu zuten Martuteneko espetxean, ohiko hitzordura agertu zenean.

Guztiok dakigu Manu Azkarate 1993an gaixotasun sendaezin eta kroniko bat duelako geratu zela baldintzapeko eskatasunean orduko kode penaleko 60. artikulua eta egungo 92. artikulua babesean. Bere espetxealdiko azken garaietan denbora gehiago pasatzen zuen ospitalean presondegian baino eta makina eta ebakuntza ere jasan izan behar izan ditu preso zegoela eta baldintzapeko askatasunean zegoela ere. Bestalde medikazio oso hertsia duela ere jakina da eta beste edozen pertsonak baino zaintza handiago behar du elikadura aldetik ere.

Atxiloketa asko izatendire mendeku kutsua hartzen dutenak baino Manuren kasua benetan muturrekoa da. Zergatik atxilotu zuten? Hileko hitzordura agertu omen ez zelako, eta noiz atxilotu dute? Hurrengo hitzordura agertu denean. Kasu honetan mendekua ezkututzen ere ez dira saiatu, argi eta garbi, nabarmen adierazidute nahi dutenean edonor sar dezaketela kartzelara, nahiz eta gaixotasun sendaezin eta kroniko bat izan.

Ondorioz, Manu Azkarate gose, egarri eta medikazio greban sartu da. Bere gaixotasunaren ezaugarriak kontuan izanda neurri honek bere osasunean izan dezakeen eragina izugarria da eta sor diezaiokeen kaltea zenbateraino izango daitekeen itzulezina pentsatu ere ez dugu egin nahi.

Hori horrela izanik, Lizartzako Udal Batzarrari ondorengo akordioa hartzea eskatzen diogu:

1.- Espetxeetako Zuzendaritzari Manu Azkarate lehen bai lehen askatzea exijitzea.

2.- Manuel Azkarateren senitartekoei elkartasuna adieraztea une zail honetan.

Manu Azkarate tolosarraren atxiloketa dela eta aurkeztutako mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

12.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

2003 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2003ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2003ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 2003-12-31ean		168.415,12
Kobratu Gabeko Saldoak, 2003-12-31ean	196.409,62	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	6.968,80	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	852,19	+ 204.230,61

DENERA		372.645,73
Ordaindu Gabeko Saldoak, 2003-12-31ean		- 273.783,75
Aurtengo Ekitaldikoak	267.111,73	
Itxitako Ekitaldikoak	-----	
Aurrekontuz Kanpokoak	6.672,01	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		98.861,98
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		98.861,98
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		98.861,98

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

2003 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2003 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espeditentean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolanahi ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

2003 ekitaldiko kontuak aztertu eta eztabaidatu ondoren, onartua izan da.

OBRATAKO BAIMENAK

ORKAIZTEGI S.L. – Zkia: 22/2004
PATXI ETXEBERRIA BERAKOETXEA – Zkia: 25/2004
IGO EIZAGIRRE SAEZ – Zkia: 32/2004
ELKOR ELECTRICIDAD S.A. – Zkia: 95/2004
AGUA DE INSALUS S.A. – Zkia: 97/2004
EUSKADIKO GASA GARRAIOA S.A.U. – Zkia: 99/2004
LUIS M^a ARROSPIDE ARRATE – Zkia: 101/2004
ESTANIS AGIRRE ZABALA – Zkia: 103/2004
ANGEL GARRIDO ALONSO – Zkia: 105/2004
LUIS M^a ARROSPIDE ARRATE – Zkia: 113/2004
PEDRO AMIAMA BIURRUN – Zkia: 157/2004
MIGUEL ANGEL IBARGUREN ESNAOLA – Zkia: 160/2004
FERMIN EZIAGIRRE TREKU – Zkia: 162/2004
ROSARIO AROZENA ETXEBERRIA – Zkia: 164/2004
HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA – Zkia: 166/2004

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunak, NAN 72509.873 zenbakidunak, Lizartzako, Goikoetxeandua Baserrian helbideratuak, 2003ko Abenduaren 22an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, BENGOETXEKO-ARTETXEA lurrik, 580 m²-ko lurra segregatu eta bereizketa egin ondoren,

JOSE MANUEL ZALAKAIN ITURRIOZ Jaunari saldu, eta honek, bere jabetzakoa den, ERREKALDE AZPIKOA baserriari lotu ahal izateko.

- 1.- “El terreno castañar denominado BENGOETXEKO-ARTETXEA. Linda: Norte, con camino carretil; Este, con pertenecidos de Arrate y regata; Sur, con los de Mintegiaga; Oeste, con los de Zumitza. Tiene cuarenta y siete áreas sesenta centiáreas.

Behin segregazio eta bereizketa egin ondoren, lurrak, honela geldituko lirateke:

- 1.- “El terreno castañar denominado BENGOETXEKO-ARTETXEA. Linda: Norte, con camino carretil; Este, con pertenecidos de Arrate y regata; Sur, con los de Mintegiaga; Oeste, con los de Zumitza. Tiene, después de la segregación, cuarenta y una áreas y ochenta centiáreas.”
- 2.- “El terreno denominado BENGOETXEKO-ARTETXEA: Linda: Norte, con camino; Este y Sur, con camino; Oeste: con pertenecidos del Caserío Errekalde Azpikoa”.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

MARIANO URBIZU ZABALA

MARIANO URBIZU ZABALA Jaunak, NAN 15.869.031 eta PAULA URDAMPILLETA GOGORZA Andreak, NAN 15.884.996 T zenbakidunak, Lizartzako, Iribarren Etxean helbideratuak, 2003ko Abenduaren 22an eskaria aurkeztu dute; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, ASTINBURU lurra, 3126 m²-ko lurra segregatu eta bere seme-alabek diren REYES eta XABIER URBIZU URDAMPILLETA Jaun/Andreei eman, eta hauek, lur horretan eraikitzen ari diren etxebizitzari lotu ahal izateko.

1.- “La heredad llamada Astinburu de veintinueve áreas y cincuenta centiáreas de sembradío, un área y setenta y seis centiáreas de herbal, que linda por Este y Sur con pertenecidos de Aztiria, por Oeste con los de Goikoetxe-aundia y por Norte con los de Astinbitarte”

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

UR ERREZIBOEN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2004ko Urtarrilaren 13an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2003ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.
Denetara 240 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 3.370,45 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2003 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

ZABORREN ERREZIBOEN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2004ko Urtarrilaren 13an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2003ko 4. Hiruhilabeteari dagokion Zaborra Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.
Denetara 298 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 2.845,87 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2003 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

ESTANIS AGIRRE ZABALA

Lizartzan, bi mila eta lauko otsailaren hogeita hiruan.

Alkatetzak honako ERABAKI hau hartu du:

Estanis Agirre Zabala Jauna, Zumitza Baserriaren atzekaldean, baimenik gabe egiten ari den obrak ikusi ondoren.

Ekainaren 26ko 1/1992 Errege-Dekretu Legegilearen bidez onartutako Lurzoruaren Erregimena eta Hiri-Antolamenduari buruzko Testu Bateratuaren 248-1 zen.dun artikulua ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Arauaren Erregelamenduko 29 artikulua ere,

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- ESTANIS AGIRRE ZABALA Jaunak, Zumitza Baserriaren atzekaldean, baimenik gabe, burutzen ari den obrak berehala etetea.
- 2.- Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 248. artikuluan aipatutako espedientearen izapideketa.

Joseba Egibar Artola Alkate Jaunak bidali eta sinatu du, eta ni neuk Idazkari naizen horrek egiaztatu dut.

A-5 SEKTOREKO XEHETASUN AZTERLANA

Agua de Insalus S.A.k eskatuta, ZMZ Asociados S.L.k, A-5eko Sektoreari dagokion Xehetasun Azterlana aurkeztu du.

Kontutan hartuaz, aurkeztutako Azterlana, Planera egokitzen dela, eta teknikari eta juridiko txostenak aldekoak direla, ERABAKI DU:

- 1.- AGUA DE INSALUS, S.A.k eskatuta, ZMZ Asociados S.L.k idatzitako A-5 Sektoreko Xehetasun Azterlanari, lehen onarpena ematea.
- 2.- Jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Egunero Egunkarian iragarkia argitaratuaz, alegazioak jarri ahal izateko.
- 3.- Alegaziorik egoten ez bada, Udal Batzarrak, behin betirako onartutzat eman beharko du.

OTSABIO KIROL ELKARTEA

Otsabio Kirol Elkarteak, Martxoaren 20an, AFIZIONATUENTZAT izango den XVI. TXIRRINDULARI FROGRA-ren alde laguntza eskatu du:

- 750,00 €-tako diru-laguntza
- Karrera egunerako frontoiko aldagelak eta dutexak.
- Sailkapenaren e-maila bidaltzeko, telefono linea bat.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

Eskatutako diru-laguntza onartu eta beste eskaerakin batera baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 750,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

BIRZATIKETA ESKRITURA

BAZURKA SYSTEMS FOR LANDFILLING, S.L. – UR-ARGI S.L., MANIPULADOS DEL ARAXES S.L. eta MARIA DOLORES CARRERA GOÑI Andreak, U-1 Industri Eremuaren Borondatezko Birzatiketa Eskritura aurkeztu dute.

Hori kontutan hartuta, ERABAKI DUT:

1.- Prozeduraren hasera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu izan dadila eta, unitate ejekuzioan afektatuak diren jabeei banaka jakinerazpena egin.

Baita ere afektatuei jakineraztea, prozedura honen hasierak, behin betiko onarpena eman bitartean, unitate ejekuzio horretan zatiketa eta eraikuntza lizentziak geldiarazten dituela.

A-6 SEKTOREKO XEHETASUN AZTERLANA

Serrería Goikoetxeaundia, S.L.k eskatuta, ASMATU S.L.k, idatzitako, Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-6 Sektorari dagokion Xehetasun Azterlana aurkeztu du.

Kontutan hartuaz, aurkeztutako Azterlana, Planera egokitzen dela, eta teknikari eta juridiko txostenak aldekoak direla, ERABAKI DU:

1.- Serrería Goikoetxeaundia, S.L.k eskatuta, ASMATU S.L.k idatzitako, Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-6 Sektorako Xehetasun Azterlanari, lehen onarpena ematea.

- 2.- Jendurrean jartzea, hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Egunero Egunkarian iragarkia argitaratuaz, alegazioak jarri ahal izateko.
- 3.- Alegaziorik egoten ez bada, Udal Batzarrak, behin betirako onartutzat eman beharko du.

HERRI URRATS

HERRI URRATS-ek, Maiatzaren 9an, Senpereko aintziraren inguruan ospatuko den Herri Urrats Ikastolen festa-ren alde laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

300,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 300,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

13.- BESTELAKOAK

Ez dago.

Hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak direnean.